



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK GILTZA  
IDENTITATEAK KUDEATZEKO PLATAFORMA  
ERABILTZEA ARAUTZEN DUEN AKORDIOA**

**ACUERDO REGULADOR DEL USO POR EL  
CONSORCIO DE AGUAS DE BILBAO BIZKAIA  
DE LA PLATAFORMA DE GESTIÓN DE  
IDENTIDADES GILTZA**

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 1ean

En Bilbao a 1 de enero de 2023

**BILDU DIRA**

**REUNIDOS**

Alde batetik, IZASKUN URRESTARAZU AMONDARAIN andrea, Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, Izenpe, S.A. enpresaren izenean.

De una parte, D<sup>a</sup>. IZASKUN URRESTARAZU AMONDARAIN, en representación de Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, Izenpe, S.A.

Zuzendari gisa dituen ahalmenak Alfredo Pérez Ávila jauna Gasteizko notarioaren aurrean 2016ko martxoaren 21ean emandako ahalorde-eskrituraren ondorio dira. Eskritura Arabako Merkataritza Erregistroan dago inskribatuta, 1541. liburukian, 79. folioan, VI-8926 orrian.

Sus facultades resultan de su condición de Directora, en virtud de escritura de poder otorgada el 21 de marzo de 2016, ante el Notario de Vitoria-Gasteiz, D. Alfredo Pérez Ávila bajo el número 773 de su protocolo, debidamente inscrita en el Registro Mercantil de Álava al Tomo 1541, Folio 79, Hoja VI-8926.

Aurrerantzean, Izenpe

En adelante, Izenpe

Bestetik, Kepa Odriozola Azula jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren izenean eta hura ordezkatzuz, 2022ko azaroaren 29ko Zuzendaritza Batzordearen Hitzarmenaren bidez egintza honetarako ahalmena eman baitzitzaion.

De otra, D. Kepa Odriozola Azula, en nombre y representación de la Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia, facultado para este acto por Convenio de Comité Directivo de fecha 29 de noviembre de 2022.

Aurrerantzean, Partzuergoa.

En adelante, el Consorcio.

Bi aldeek Hitzarmen hau sinatzeko gaitasun juridiko nahikoa aitortzen diote elkarri, eta horren arabera,

Ambas partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente Convenio y en su virtud,



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

## AZALTZEN DUTE

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, administrazio elektronikoaren ezarpenean sakontzen du, prozedura arinagoak eta gardenagoak lortzeko, gizartearen egungo beharrei erantzuteko eta herritarrentzako administrazio-simplifikazio beharrezkoa lortzeko. Bitarteko elektronikoaren erabilera bermatzeko eta orokortzeko, administrazioak herritarren eskura jarri behar ditu beharrezko sistemak eta aplikazioak.

Administrazio elektronikoaren oinarrietako bat prozeduran interesdunek erabil ditzaketen identifikazio- eta sinadura-sistemak zehaztea da. Alde horiek aipatutako lege-testuaren 9. artikulutik 12. artikulura bitartean araututa daude.

9. artikulua ezartzen du Administrazio publikoaren administrazio-prozeduran interesdunen nortasuna egiaztatzeko betebeharra dutela, eta, era berean, 2. paragrafoan, identifikazio elektronikorako onartutako sistemak jasotzen ditu, eta aurreikusten du sistema horiek alde aurretik erregistro bat izan dutela erabiltzaile gisa, haien nortasuna bermatzeko.

Bestalde, 10. artikuluan herri-administrazioek onartutako sinadura-sistemak arautzen dira.

- Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, beren informatika-sozietateen bitartez, Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, S.A. sozietatea eratu zuten (aurrerantzean, Izenpe).

## EXPONEN QUE

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas profundiza en la implantación de la Administración electrónica con el objetivo de conseguir procedimientos más ágiles y transparentes que den respuesta a las necesidades actuales de la sociedad y que redunden en una necesaria simplificación administrativa para los ciudadanos. Para garantizar y generalizar la utilización de medios electrónicos, la Administración debe poner a disposición de la ciudadanía los sistemas y aplicaciones necesarios.

Uno de los pilares sobre el que se sostiene la administración electrónica es la determinación de los sistemas de identificación y firma que pueden utilizar los interesados en el procedimiento. Aspectos estos que aparecen regulados en los artículos 9 a 12 del citado texto legal.

El artículo 9 establece la obligación de las Administraciones Públicas de verificar la identidad de los interesados en el procedimiento administrativo y contempla, asimismo, en su apartado 2, los sistemas de identificación electrónica admitidos, previendo que los mismos han contar con un registro previo como usuario que permita garantizar su identidad.

Por su parte, en el artículo 10 se regulan los sistemas de firma admitidos por las Administraciones Públicas.

El Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, a través de sus respectivas sociedades informáticas, constituyeron la sociedad Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, S.A. (en adelante, Izenpe).



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

Estatutuen 1. artikulua ezartzen duenez, sozietateak:

Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A. ren baliabide propio pertsonifikatutzat hartuko da. (Ejie), Lantik, S.A., Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte - Sociedad Foral de Servicios Informáticos, S.A. (IZFE) eta Arabako Kalkulu Zentroa, S.A. (CCASA) eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren bitarteko propio pertsonifikatua, bai eta haien mendeko gainerako erakunde publikoena ere.

Izenpe bitarteko propio duten erakundeek sozietateari agindu ahal izango diote sozietatearen estatutueta 4. artikuluko 1. paragrafoan identifikatutako helburu sozialeko jardueraren bat xede duten lanak, zerbitzuak eta edozein jarduketa eta gomendio egiteko.

Bestalde, 4. artikulua, sozietatearen xedeari buruzkoak, honako hau ezartzen du:

ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA – EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE, S.A. enpresaren xedea da:

- Telekomunikazio-sareen gaineko harreman elektronikoak sustatzea, beharrezko segurtasun-bermeekin.

- Euskal sektore publikoa osatzen duten erakundearen eremuan, teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen bidezko komunikazioetan segurtasun-

El artículo 1 de sus estatutos establece que la Sociedad:

“tendrá la consideración de medio propio personificado de Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A. (Ejie), Lantik, S.A., Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte - Sociedad Foral de Servicios Informáticos S.A. (IZFE) y del Centro de Cálculo de Álava, S.A. (CCASA) y en aplicación de lo establecido en el artículo 32.4 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, la condición de medio propio personificado de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de la Diputación Foral de Bizkaia, de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de la Diputación Foral de Álava, así como de los demás entes públicos de ellas dependientes.

Las entidades para las que Izenpe es medio propio podrán encargar a la Sociedad la realización de trabajos, servicios y cualesquiera actuaciones y encomiendas que tengan por objeto alguna de las actividades de su objeto social identificadas en el artículo 4, apartado 1, de los Estatutos Sociales.

Por su parte el artículo 4, apartado referente al objeto social establece:

Constituye el objeto de ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA - EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE, S.A.:

- El fomento de las relaciones electrónicas sobre redes de telecomunicaciones, con las necesarias garantías de seguridad.

- La prestación, en el ámbito de las instituciones que integran el sector público vasco, de servicios de seguridad, técnicos y organizativos, en las comunicaciones a



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

zerbitzuak, teknikoak eta antolamendukoak ematea.

- Pertsona edo erakunde publiko edo pribatuak identifikatzeko, autentifikatzeko, sinatzeko eta/edo elektronikoki zigilatze bitarteko eta sistema elektronikoa ematea eta kudeatzea.

- Aholkularitza-zerbitzuak eta aurreko paragrafoekin zerikusia duen beste edozein.

Testuinguru horretan, aldeek adostu dute lankidetzabaldintzak ezartzea Izenpek emandako Giltza plataformaren erabilerari dagokionez, EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014ko uztailearen 23ko 910/2014 (EB) Erregelamenduaren esparruan (barne-merkatuko transakzio elektronikoa identifikazio elektronikoa eta konfiantza-zerbitzuei buruzkoa eta 1999/93/EE Zuzentarau indargabetzen duena).

Horretarako, bi alderdiek Hitzarmen hau sinatzea hitzartu dute, eta hauek izango ditu

#### **KLAUSULAK,**

##### **LEHENENA. - XEDEA**

Hitzarmen honen xedea da Partzuergoak Giltza identitateak kudeatzeko plataforma erabiltzeko baldintza orokorrak ezartzea.

Euskal administrazioen identitateen federaziorako plataforma da, herritarrei, enpresei eta profesionalei Euskadiko Administrazio Publikoarekin izapideak egiteko toki bakar batean identifikatzeko aukera ematen diona.

través de técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos.

- La emisión y gestión de medios y sistemas de identificación electrónicos para la identificación, autenticación, firma y/o sellado electrónico, a personas o entidades públicas o privadas.

- Servicios de consultoría y cualquier otro relacionados con los párrafos anteriores.

En este contexto las partes acuerdan establecer las condiciones de colaboración en relación al uso de la plataforma Giltza prestada por Izenpe en el ámbito del Reglamento (UE) Nº 910/2014 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 23 de julio de 2014 relativo a la identificación electrónica y los servicios de confianza para las transacciones electrónicas en el mercado interior y por la que se deroga la Directiva 1999/93/CE.

Para ello, ambas partes pactan celebrar el presente Convenio que se registrará por las siguientes,

#### **CLAÚSULAS,**

##### **PRIMERA. – OBJETO**

El presente Convenio tiene por objeto establecer los términos y condiciones generales para la utilización por el Consorcio de la Plataforma de gestión de identidades Giltza.

Se trata de la plataforma para la federación de identidades de las administraciones vascas que permite a la ciudadanía, empresas y profesionales identificarse en un único lugar para realizar trámites con la Administración Pública de Euskadi



## **BIGARRENA. - ALDEEN BETEBEHARRAK**

Oro har, alde sinatzaileek betebeharrak hauek hartzen dituzte beren gain:

- Hitzarmen honetan zerrendatutako oinarritzko soluzioetara iristeko beharrezko konektibitate- eta hedapen-lan teknikoak egitea.
- Soluzioak behar bezala erabiltzea, baimenduta dagoenerako soilik erabilia.
- Hitzarmen honetan jasotako soluzio teknologikoak erabiltzen dituzten aplikazioak eta sistemak administratzeko prozesuak harmonizatzeko ezarritako prozedurei jarraitzea.
- Hitzarmen honetan jasotako soluzio teknologikoei lotutako informazioa eta sistemak behar bezala babesteko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartzea eta betetzea.
- Zerbitzuak emateko behar den lege-, administrazio- eta teknika-informazioa eta herritarrek jakin beharreko beste edozein informazio deskribatzen duten dokumentuak eguneratzen laguntzea, hala aurreikusten duten irtenbide teknologikoetarako.
- Hitzarmen honetan jasotako soluzio teknologikoen zehaztapen teknikoak betetzea, bere eskumenen esparruan.
- Alderdi sinatzaileek edo horien hornitzaileek ez dute inola ere zeharkako kalte-galerarik beren gain hartu beharrik izango, baldin eta hitzarmen honetan jasotako oinarritzko konponbideak gaizki

## **SEGUNDA. - OBLIGACIONES DE LAS PARTES**

Con carácter general, las partes firmantes asumen las siguientes obligaciones:

- Realizar las labores técnicas necesarias de conectividad y despliegue para el acceso a las soluciones básicas enumeradas en el presente Convenio.
- Hacer un uso correcto de las soluciones, empleándolas exclusivamente para aquello para lo que están autorizadas.
- Seguir los procedimientos establecidos para armonizar los procesos de administración de aplicaciones y sistemas usuarios de las soluciones tecnológicas incluidas en el presente Convenio.
- Adoptar y cumplir las medidas de seguridad necesarias para proteger debidamente la información y los sistemas asociados a las soluciones tecnológicas incluidas en el presente Convenio.
- Colaborar en la actualización, para aquellas soluciones tecnológicas que así lo contemplen, de los documentos que describan la información legal, administrativa y técnica necesaria para la prestación de los servicios, así como cualquier otra información que deba ser conocida por la ciudadanía.
- Cumplir, dentro del ámbito de sus competencias, las especificaciones técnicas de las soluciones tecnológicas incluidas en el presente Convenio.
- En ningún caso las partes firmantes o sus proveedores están obligados a asumir daños y perjuicios indirectos que provengan del mal empleo o la no disponibilidad de las soluciones básicas incluidas en el presente



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

erabiltzetik edo ez erabiltzetik badatoz alderdi sinatzaileak, toki-erakundeak edo lotutako edo mendeko erakunde publikoak.

Convenio por parte de las partes firmantes, las entidades locales o las entidades públicas, vinculadas o dependientes.

#### **HIRUGARRENA. - ALDEEN BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK**

#### **TERCERA. - OBLIGACIONES ESPECÍFICAS DE LAS PARTES**

Berariaz, aldeek beren gain hartzen dituzte betebeharrak,

Con carácter específico, las partes asumen las obligaciones,

Izenpe(k),

Izenpe,

- Giltza plataformak eskainitako zerbitzuak Partzuergoaren esku jarriko ditu.

- Pondrá a disposición del Consorcio los servicios ofrecidos por la plataforma Giltza.

- Zerbitzuen integrazioaren froga-inguruneak izango ditu, azken erabiltzaileen eskura jarri aurretik zerbitzuak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko.

- Dispondrá de entornos de prueba de la integración de los servicios con objeto de garantizar la correcta operación de los servicios con carácter previo a su puesta a disposición a los usuarios finales.

- Giltza erabiltzearen ondoriozko kontsultei eta gorabeherei erantzuteko eta horiek ebazteko beharrezko baliabideak izango ditu.

- Dispondrá de recursos necesarios para atender y resolver las consultas e incidencias derivadas del uso de Giltza.

- Giltzaren bidez eskainitako zerbitzuen informazioa behar bezala babesteko beharrezkoak diren segurtasun-neurri guztiak hartuko ditu.

- Adoptará todas las medidas de seguridad necesarias para proteger debidamente la información de los servicios ofrecidos a través de Giltza.

- Zerbitzua ematearekin zerikusia duten datu guztien egonkortasuna, sendotasuna, erabilgarritasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko ditu.

- Garantizará la estabilidad, robustez, disponibilidad, integridad y confidencialidad de todos los datos relacionados con la prestación del servicio.

- Partzuergoari beharrezko informazioa ematea, partzuergoak hura ezartzeko behar diren zehaztapen teknikoak ezagutu ahal izan ditzan.

- Facilitar al Consorcio la información necesaria para que ésta pueda conocer las especificaciones técnicas necesarias para su implantación.

- Eguneratze eta zerbitzu berrien berri emango du.

- Informará de nuevas actualizaciones y servicios disponibles



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

- Partzuergoaren proiektuak egiteko beharrezkoak diren alderdi teknikoei, juridikoei eta hedapenekoei buruzko oinarritzko prestakuntza emango du, Izenperen aplikazio edo euskarrietan oinarritzen eta/edo erabiltzen badira, aldez aurretik alderdiak ados jarrita.

- Facilitará la formación básica necesaria en los aspectos técnicos, jurídicos y de despliegue que sean necesarios para la realización de los proyectos del Consorcio que se basen y/o se sirvan de aplicaciones o soportes de Izenpe, previo acuerdo de las partes.

Partzuergoa(k),

El Consorcio,

- Giltza integrazio-proiektuetan erabiltzen bada, hura behar bezala konfiguratzeko eta administratzeko behar diren datuak ematea.

- Facilitar los datos necesarios para la correcta configuración y administración de Giltza en caso de utilizarla en proyectos de integración.

- Izenpek Giltzarako zehaztutako integrazio-prozedura beteko du.

- Cumplirá el procedimiento de integración definido por Izenpe para Giltza.

- Gorabeheren egoeretan lagunduko du.

- Colaborará en las situaciones de incidencias.

#### **LAUGARRENA. - ALDEEN ERANTZUKIZUN OROKORRAK**

#### **CUARTA. - RESPONSABILIDADES GENERALES DE LAS PARTES**

Izenpe:

Izenpe:

– Hitzarmen honetan zehaztutakoa zuzen betetzearen erantzule izango da.

– Responderá de la correcta prestación de lo determinado en el presente Convenio.

– Hitzarmen honen arabera dituen betebeharrak ez betetzeak eragindako kalteen erantzulea izango da.

– Será responsable de los daños causados debidos al incumplimiento de sus obligaciones de acuerdo con este Convenio.

– Zehazki, konfiantzako zerbitzuak ematen dituen aldetik, edozein pertsonari bere jardueran eragindako kalte-galeren erantzule izango da, baldin eta hitzarmen honek edo konfiantzako zerbitzuak ematearen arloan aplikatu beharreko legeriak ezartzen dizkion betebeharrak betetzen ez baditu edo zabarkeriaz jokutzen badu.

– En particular, como Prestador de Servicios de Confianza, responderá por los daños y perjuicios que cause a cualquier persona en el ejercicio de su actividad cuando incumpla las obligaciones que le impone este Convenio o la legislación aplicable en materia de prestación de servicios de confianza o actúe con negligencia.



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

Partzuergoaren ardura izango da:

– Zerbitzuen erabilera egokia hemen zehaztutakoaren arabera.

– Izenperen aurrean, Hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak ez betetzeak eragindako kalteengatik.

#### **BOSGARRENA. - KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA**

##### 1. Konfidentzialtasuna.

Hitzarmen hau betetzearen ondorioz eskura daitekeen informazio guztia, bai aldeek, bai haiek gauzatera atxikitako pertsonak, bai, hala badagokio, enpresa azpikontratistek, konfidentziala da, eta sekretu profesionalaren betebeharraren mende dago, aplikatzekoa den araudiaren arabera. Beraz, isilpean gorde beharko da, eta ez zaio inola ere jakinarazi beharko, ez osorik ez zati batean, Hitzarmenaren parte ez den pertsona fisiko edo juridikorik, Izenpek alde zurretik eta berariaz baimena eman ezean.

Aurreko edozein pertsona fisiko edo juridikok konfidentzialtasun-betebarra eta, hala badagokio, sekretu profesionalaren betebarra urratzen badu, dagozkion erantzukizunak eta eragindako kalte-galerak eskatuko zaizkio. Betebehar horiek bete beharko dira, nahiz eta Hitzarmenaren betearazpena amaitu edo alderdien arteko kontratu-harremana amaitu.

Nolanahi ere, datu pertsonalak tratatzea ez dakarten lanak egiten direnean, debekatuta

El Consorcio será responsable:

– Del uso adecuado de los servicios según lo aquí determinado.

– Frente a Izenpe por los daños causados derivados del incumplimiento de sus obligaciones determinadas en este Convenio.

#### **QUINTA. - CONFIDENCIALIDAD Y TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES**

##### 1. Confidencialidad

Toda la información a la que tenga acceso con ocasión del cumplimiento de este Convenio, tanto las partes como las personas por ellas adscritas a su ejecución y, en su caso, las empresas subcontratistas, tiene el carácter de confidencial y está sometida al deber de secreto profesional, de conformidad con su normativa aplicable, por lo que deberá mantenerse en reserva y secreto y no revelarse de ninguna forma, en todo o en parte, a ninguna persona física o jurídica que no sea parte del Convenio, salvo que medie autorización previa y expresa de Izenpe.

La vulneración por parte de cualquiera de las personas físicas o jurídicas anteriores del deber de confidencialidad y, en su caso, del deber de secreto profesional dará lugar tanto a la exigencia de las correspondientes responsabilidades como de los daños y perjuicios ocasionados. Deberá cumplirse con tales deberes aun cuando haya finalizado la ejecución del Convenio o haya cesado la relación contractual entre las partes.

En todo caso, en la realización de trabajos que no impliquen el tratamiento de datos personales, queda prohibido acceder a ellos,





**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

dago horietara sartzea, eta isilpean gorde behar dira ezagutzen direnak.

y es obligatorio guardar secreto respecto a los que pudieran conocerse.

## 2. Datu pertsonalen tratamendua.

## 2. Tratamiento de datos personales.

Hitzarmen hau betetzeko, aldeek tratamendu honetan agertzen diren datu pertsonalak tratatuko dituzte:

Para el cumplimiento de este Convenio, las partes tratarán los datos personales que figuran en el siguiente tratamiento:

| Tratamendu-jarduera                     | Arduraduna                    | Tratamendu-eragilea | Actividad de tratamiento                    | Responsable                          | Encargado del tratamiento |
|---|-------------------------------|---------------------|---|--------------------------------------|---------------------------|
| Giltza nortasunak kudeatzeko plataforma | Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa | Izenpe              | Plataforma de gestión de identidades Giltza | Consortio de Aguas de Bilbao Bizkaia | Izenpe                    |

Izenpek datu pertsonalen tratamenduaren arduradun gisa dituen betebeharrei dagokienez.

Respecto a las obligaciones de Izenpe como encargado del tratamiento de datos personales.

Izenpek honako betebeharrak bete behar ditu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Erregelamendu hori datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen du.

Izenpe cumplirá las siguientes obligaciones de conformidad con lo previsto en el artículo 28 del «Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos)» (RGPD):

a) Zehaztutakoak ez diren beste datu pertsonal batzuk ez ditu atzitu edo tratatuko, eta ez ditu erabiliko edo aplikatuko mandatuaren xedea gauzatzea ez den beste helburu baterako eskuratzen edo tratatzen dituen datu pertsonalak.

a) No accederá o tratará otros datos personales que no sean los especificados, ni utilizará o aplicará los datos personales a los que acceda o trate con una finalidad distinta a la ejecución del objeto del encargo.

b) Datu pertsonalak hitzarmen honetan dokumentatutako jarraibideen arabera tratatuko ditu, bai eta, hala badagokio, tratamenduaren ardura duen ataletik idatziz jasotzen dituenen arabera ere, eta berehala emango dio horren berri atal horri, baldin

b) Tratará los datos personales conforme a las instrucciones documentadas en el presente Convenio y a aquellas que, en su caso, reciba del órgano responsable del tratamiento por escrito, e informará inmediatamente a este último cuando, en su



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

eta, bere iritziz, jarraibide bat une bakoitzean aplikatzekoa den datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkakoa bada.

c) Datu pertsonalak segurtasunari eta arriskuari eusteari buruzko irizpideen arabera tratatuko ditu, DBEOren 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta eskura dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasun-neurri teknikoak eta antolakuntzakoak bete eta hartuko ditu.

d) Erabateko konfidentzialtasuna gordeko du hitzarmena gauzatzeko eskura dituen datu pertsonalei buruz, bai eta datu horiek tratatzearen ondoriozkoen buruz ere, edozein euskarritan eskuratu direla ere. Betebehar hori Izenperen konturako datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duen pertsona orori aplikatuko zaio, eta Izenpek bere mendeko pertsonen sekretu-betebehar hori irakatsi beharko die, bai eta betebehar horri eutsi ere, Hitzarmenaren prestazioa amaitu edo hura bereizi ondoren ere.

e) Datu pertsonalak ez dizkie hirugarrenei jakinaraziko edo zabalduko, ezta gordetzeko ere, kasu bakoitzean tratamenduaren atal arduradunaren aurretiazko eta berariazko baimena izan ezean.

f) Tratamenduaren ardura duen atalak hala nahi izanez gero, honako hauek itzuli edo suntsituko ditu: eskuratu dituen datu pertsonalak, Izenpek tratamenduaren ondorioz sortutakoak, eta, hitzarmen honen xede den enkargua amaitu ondoren, datu horietako edozein jasotzen duten euskarri eta dokumentuak. Lege bidez edo Europako Erkidegoko zuzenbideko arau baten bidez

opini3n, una instrucci3n sea contraria a la normativa de protecci3n de datos personales aplicable en cada momento.

c) Tratar3 los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y contenci3n del riesgo conforme a lo previsto en el art3culo 32 del RGPD, as3 como observar3 y adoptar3 las medidas t3cnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tenga acceso.

d) Mantendr3 la m3s absoluta confidencialidad sobre los datos personales a los que tenga acceso para la ejecuci3n del Convenio, as3 como sobre los que resulten de su tratamiento, cualquiera que sea el soporte en el que se hubieren obtenido. Esta obligaci3n se extender3 a toda persona que intervenga en cualquier fase del tratamiento de datos personales por cuenta de Izenpe, siendo deber de esta 3ltima instruir a las personas que de ella dependan, de este deber de secreto, y del mantenimiento de dicho deber a3n despu3s de la terminaci3n de la prestaci3n del Convenio o de su desvinculaci3n.

e) No comunicar3 ni difundir3 los datos personales a terceros, ni siquiera para su conservaci3n, a menos que se cuente, en cada caso, con la autorizaci3n previa y expresa del 3rgano responsable del tratamiento.

f) Devolver3 o destruir3, a elecci3n del 3rgano responsable del tratamiento, los datos personales a los que haya tenido acceso, aquellos otros generados por Izenpe por causa del tratamiento, y los soportes y documentos en que cualesquiera de esos datos consten, una vez finalizado el encargo objeto del presente Convenio. No proceder3 su destrucci3n cuando su conservaci3n se



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

kontserbatzea onartzen edo eskatzen denean, ezin izango dira suntsitu.

permita o requiera por ley o por norma de derecho comunitario.

Hala ere, Izenpek datu pertsonalak gorde ahal izango ditu tratamenduaren ardura duen atalarekin duen harremanetik erantzukizunak erator daitezkeen bitartean; kasu horretan, blokeatuta eta gutxieneko denboran gordeko ditu, eta epe horren amaieran modu seguruan eta behin betiko suntsituko ditu.

No obstante, Izenpe podrá conservar los datos personales durante el tiempo en que puedan derivarse responsabilidades de su relación con el órgano responsable del tratamiento, en cuyo caso los conservará bloqueados y por el tiempo mínimo, destruyéndolos de forma segura y definitiva al final de dicho plazo.

g) Datu pertsonalak Europako Esparru Ekonomikoaren barruan edo aplikatzekoa den araudiak segurtasun baliokidetzat jotzen duen beste espazio batean tratatuko ditu, eta ez ditu espazio horretatik kanpo tratatuko, ez zuzenean, ez baimendutako edozein azpikontratistaren bidez, enkargu honetan ezarritakoaren arabera, salbu eta Batasuneko edo aplikagarri zaion estatu kideko Zuzenbidearen arabera horretara behartuta badago, II. eranskinean beste zerbait adierazten bada edo tratamenduaren ardura duen atalak berariaz hala instruitzen badu.

g) Tratará los datos personales dentro del Espacio Económico Europeo u otro espacio considerado por la normativa aplicable como de seguridad equivalente, no tratándolos fuera de este espacio ni directamente ni a través de cualesquiera subcontratistas autorizados, conforme a lo establecido en este encargo, salvo que esté obligado a ello en virtud del Derecho de la Unión o del Estado miembro que le resulte de aplicación, que se indique otra cosa en el Anexo II o se instruya así expresamente por el órgano responsable del tratamiento.

h) Tratamenduaren ardura duen atalari berehala eta arduraz jakinaraziko dio bere kargura dituen datu pertsonalen segurtasunaren edozein urraketa, baldin eta horren berri badu, gehienez ere 72 orduko epean, eta gorabeherari buruzko dokumentaziorako eta komunikaziorako garrantzitsua den informazio guztia emango dio, edo informazioa tratatzeko eta kudeatzeko sistemari izan duen edo izan dezakeen edozein akats, baldin eta horrek datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen badu, bai eta konfidentzialtasuna urratzen badu ere, enkargua gauzatzeko lortutako datuak eta informazioak hirugarrenei jakinaraztearen ondorioz, baita konfidentzialtasuna galdu duten interesdunak zein diren zehaztuta ere; hori

h) Comunicará inmediata y diligentemente al órgano responsable del tratamiento cualquier violación de la seguridad de los datos personales a su cargo de la que tenga conocimiento, a más tardar en el plazo de 72 horas, suministrándole toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia, o cualquier fallo en su sistema de tratamiento y gestión de la información, que haya tenido o pueda tener, que ponga en peligro la seguridad de los datos personales, su integridad o su disponibilidad, así como cualquier posible vulneración de la confidencialidad, como consecuencia de la puesta en conocimiento de terceros de los datos e informaciones obtenidos durante la ejecución del encargo, incluso concretando qué personas interesadas sufrieron una pérdida de



guztia, DBEOren 33. artikuluekin bat etorriz.

i) Tratamenduaren atal arduradunari ahalik eta lasterren jakinaraziko dio interesdunak berari dagozkion eskubideetako edozein erabiltzen duela, hala nola bere datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke, aurkaratzeko, tratamendua mugatzeko eta eramateko eskubidea, edo aplikatu beharreko araudiak aitortutako beste batzuk, eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko.

Jakinarazpena berehala egin behar da, inola ere ez eskubidea baliatzeko eskaera jaso eta hurrengo lanegunetik aurrera, eskubidea erabiltzen duenaren identifikazio fedemailea barne, eta, hala badagokio, bere esku dagoen eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen agiriak eta beste informazio batzuk erantsiko zaizkio.

Tratamenduaren ardura duen atalari lagunduko dio, ahal den guztietan, bere eskubidea egikaritzen duen pertsona interesdunari bete eta erantzun diezaion.

j) Tratamenduaren atal arduradunarekin elkarlanean arituko da segurtasun-neurrien arloan dituen betebeharrak betetzeko, agintari eskudunei edo interesdunei segurtasun-neurriak jakinarazteko eta/edo horien berri emateko (lortuak eta saiatuak), eta datu pertsonalak babesteari buruzko eragin-ebaluzioak egiteko eta agintari eskudunei aldeztetik kontsultak egiteko, tratamenduaren izaera eta duen informazioa kontuan hartuta.

Era berean, tratamenduaren ardura duen atalaren esku jarriko du, hark hala eskatzen badiu, hemen aurreikusitako betebeharrak betetzen dituela frogatzeko behar den

confidencialidad; todo ello, de conformidad con el artículo 33 del RGPD.

i) Comunicará al órgano responsable del tratamiento con la mayor prontitud que una persona interesada ejerce ante él cualquiera de los derechos que le asisten, como el de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y portabilidad de sus datos personales, u otros reconocidos por la normativa aplicable, y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas.

La comunicación debe hacerse de forma inmediata, en ningún caso más allá del día laborable siguiente al de la recepción de la solicitud del ejercicio de derecho, incluirá la identificación fehaciente de quien ejerce el derecho e irá acompañada, en su caso, de la documentación y de otras informaciones que puedan ser relevantes para resolver la solicitud que obre en su poder.

Asistirá al órgano responsable del tratamiento, siempre que sea posible, para que pueda cumplir y dar respuesta a la persona interesada que ejercita su derecho.

j) Colaborará con el órgano responsable del tratamiento en el cumplimiento de sus obligaciones en materia de medidas de seguridad, en la comunicación y/o notificación de brechas (logradas e intentadas) de medidas de seguridad a las autoridades competentes o a los interesados y en la realización de evaluaciones de impacto relativas a la protección de datos personales y consultas previas al respecto a las autoridades competentes, teniendo en cuenta la naturaleza del tratamiento y la información de la que disponga.

Asimismo, pondrá a disposición del órgano responsable del tratamiento, a requerimiento de este, toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento



informazio guztia, eta tratamenduaren ardura duen atalak egindako auditorietza eta ikuskapenak egiten lagunduko du, hala badagokio.

k) Enkargua dela-eta azpikontratazioa gertatzen bada, Izenpek honako hau bermatu beharko du:

1. Azpikontratatistak datu pertsonalen tratamendua indarreko legeriara, Hitzarmen honetan jasotakora eta tratamenduaren ardura duen atalaren jarraibideetara egokitzea.

2. Izenpek eta enpresa azpikontratatistak datu pertsonalen tratamendurako enkargu-kontratu bat formalizatzea, Ebazpen honetan aurreikusitako baldintzetan, eta kontratu hori tratamenduaren ardura duen atalaren esku utziko da, hark hala eskatzen duenean, haren existentzia eta edukia egiaztatzeko.

de las obligaciones aquí previstas, y colaborará en la realización de auditorías e inspecciones llevadas a cabo, en su caso, por el órgano responsable del tratamiento.

k) En el caso de que se dé la subcontratación con ocasión del encargo, Izenpe deberá garantizar lo siguiente:

1. Que el tratamiento de datos personales por parte del subcontratista se ajuste a la legalidad vigente, lo contemplado en este Convenio y a las instrucciones del órgano responsable del tratamiento.

2. Que Izenpe y la empresa subcontratista formalicen un contrato de encargo de tratamiento de datos personales en términos no menos restrictivos a los previstos en la presente Resolución, el cual será puesto a disposición del órgano responsable del tratamiento a su mera solicitud para verificar su existencia y contenido.

| Tratamenduaren eragiketak |   |                                     | Operaciones de tratamiento  |                          |  |                          |                                 |
|---------------------------|---|-------------------------------------|---|--------------------------|--|--------------------------|---------------------------------|
| <input type="checkbox"/>  | <b>Bilketa / Erregistroa</b><br>Recogida / Registro   | <input type="checkbox"/>            | <b>Sailkapena / Egituraketa</b><br>Clasificación / Estructuración | <input type="checkbox"/> | <b>Kontserbazioa/ Segurtasun kopia</b><br>Conservación / Copia de seguridad        | <input type="checkbox"/> | <b>Aldaketa</b><br>Modificación |
| <input type="checkbox"/>  | <b>Ateratzea</b><br>Extracción  | <input checked="" type="checkbox"/> | <b>Kontsulta</b><br>Consulta                                      | <input type="checkbox"/> | <b>Komunikazioa / Transmisioa</b><br>Comunicación / Transmisión                    | <input type="checkbox"/> | <b>Mugatzea</b><br>Limitación   |
| <input type="checkbox"/>  | <b>Ezabatzeko / Ezeztatzeko / Ahazteko izateko eskubidea</b><br>Supresión / Cancelación / Derecho al olvido | <input type="checkbox"/>            | <b>Kopiak suntsitzea</b><br>Destrucción de copias                 | <input type="checkbox"/> | <b>Segurtasun-kopiak berreskuratzea</b><br>Recuperación de las copias de seguridad | <input type="checkbox"/> |                                 |

– Gordetzeko epea

Tratamendua datuak biltzeko helburua betetzeko eta balizko erantzukizunak zehazteko behar den denborarako egingo da.

– Plazo de conservación

El tratamiento se efectuará por el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

– Datuen erabilgarritasuna Hitzarmena amaitzean

Hitzarmena amaitutakoan, Izenpek tratamenduaren ardura duen atalari itzuli beharko dizkio datu pertsonalak eta, hala badagokio, datu horiek jasotzen dituzten euskarriak. Itzulketak berekin ekarri behar du Izenpek erabilitako ekipo informatikoetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatzea. Hala ere, Izenpek kopia bat gorde dezake, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta, Hitzarmena betearaztearen erantzukizunak erator daitezkeen bitartean.

#### **SEIGARRENA. - INDARRALDIA**

Hitzarmen hau formalizatzen den egunaren biharamunean hasiko da indarrean, eta 4 urteko iraupena izango du.

#### **ZAIZPIGARRENA. - ARAUBIDE EKONOMIKOA**

Hitzarmen honek ez die betebeharrak ekonomikorik sortuko aldeei.

#### **ZORTZIGARRENA. - JARRAIPEN BATZORDEA.**

Hitzarmen hau behar bezala gauzatzen dela koordinatu eta ziurtatzeko, jarraipen batzorde misto bat eratuko da. Batzorde horrek lau kide izango ditu: bi Partzuergoaren ordezkari gisa eta bi Izenperen ordezkari gisa.

Batzordearen presidentetza txandakakoa izango da sei hilabeteko aldietan, Izenperekin hasita.

Batzordea alderdietako edozeinek eskatuta bilduko da, eta gutxienez behin (hiru hilean

la que se recabaron los datos, y para determinar las posibles responsabilidades.

– Disposición de los datos al terminar el Convenio.

Una vez finalice el Convenio, Izenpe deberá devolver al órgano responsable del tratamiento los datos personales y, si procede, los soportes donde consten. La devolución debe comportar el borrado total de los datos personales existentes en los equipos informáticos utilizados por Izenpe. Sin embargo, Izenpe puede conservar una copia, con los datos personales debidamente bloqueados, mientras puedan derivarse responsabilidades de la ejecución del Convenio.

#### **SEXTA. - PERIODO DE VIGENCIA**

El periodo de vigencia de este Convenio comenzará el día siguiente a su formalización y tendrá una duración de 4 años.

#### **SEPTIMA. - RÉGIMEN ECONÓMICO**

El presente Convenio no generará obligaciones económicas para ninguna de las partes.

#### **OCTAVA. - COMISION DE SEGUIMIENTO.**

Con el fin de coordinar y asegurar la correcta ejecución del presente Convenio se constituirá una Comisión Mixta de Seguimiento compuesta por cuatro miembros, dos en representación del Consorcio y dos en representación de Izenpe.

La Presidencia de la Comisión tendrá carácter rotatorio por periodos de seis meses, comenzando por Izenpe.

La Comisión se reunirá a instancia de cualquiera de las partes, y al menos una vez



behin), egindako lankidetzaren emaitzak eta gorabeherak aztertzeko.

#### **BEDERATZIGARRENA. - AZKENTZEA**

Hitzarmen hau honako arrazoi hauetakoren bat gertatzen denean amaituko da:

- Bi aldeak ados jartzea.
- Hitzarmenaren indarraldia luzatzea erabaki gabe igarotzea.
- Sinatzaileen batek bere gain hartutako betebeharrak ez betetzea.

Kasu honetan, alderdietako batek konpromisoak bete ez dituen alderdiari errekerimendua jakinarazi ahal izango dio epe jakin batean bete ez dituen betebeharrak edo konpromisoak egin ditzan. Errekerimendu hori hitzarmenaren jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta sinatu duten gainerako aldeei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan azaldutako epea igarotakoan ez betetzen jarraitzen bada, errekerimendua igorri zuen aldeak alde sinatzaileei hitzarmena suntsitzeko arrazoia dagoela jakinaraziko die, eta hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da. Arrazoi horregatik hitzarmena suntsitzen bada, baliteke sortutako kalteak ordaindu behar izatea, hala aurreikusi bada.

- Indarrean dagoen legerian ezarritako gainerako arrazoiengatik.

Suntsiarazpenaren edo hutsalketaren kasuan, aldeek kontratua suntsiarazi aurretik beste aldearen eta hirugarrenen aurrean beren gain hartutako betebeharrak bete beharko dituzte.

(cada tres meses), para examinar los resultados e incidencias de la colaboración realizada.

#### **NOVENA. – EXTINCIÓN**

El presente Convenio finalizará cuando concurra alguna de las siguientes causas:

- Mutuo acuerdo de las partes.
- El transcurso del plazo de vigencia del Convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El incumplimiento de las obligaciones asumidas por parte de alguno de los firmantes.

En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Este requerimiento será comunicado al responsable del mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y a las demás partes firmantes.

Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a las partes firmantes la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio. La resolución del convenio por esta causa podrá conllevar la indemnización de los perjuicios causados si así se hubiera previsto.

- Por las demás causas establecidas en la legislación vigente.

En caso de resolución o rescisión, las partes deberán cumplir las obligaciones asumidas con anterioridad a la resolución del contrato frente a la otra parte y frente a terceros.



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

#### **HAMARGARRENA. - ALDAKETA.**

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean aldatu ahal izango da, alde sinatzaileek hala adosten badute, eta adostutako aldaketak erantsiko zaizkio, eranskin gisa.

#### **HAMAIKAGARRENA. - JURISDIKZKOA**

Hitzarmen hau interpretatzean edo gauzatzean aldean artean sortzen den edozein arazo Vitoria-Gasteizko epaitegi eta auzitegien esku jarriko da.

Ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmen hau sinatu dute.

**D<sup>a</sup>. Izaskun Urrestarazu Amondarain andrea**

**Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de  
Certificación y Servicios IZENPE SA**

#### **DECIMA. -MODIFICACIÓN.**

El presente Convenio podrá modificarse durante su vigencia por mutuo acuerdo entre las partes firmantes, incorporándose al mismo, a modo de adenda, las modificaciones acordadas.

#### **DECIMOPRIMERA. – JURISDICCION**

Cualquier cuestión que surja entre las partes, en relación con la interpretación o ejecución del presente Convenio se someterá a los Juzgados y Tribunales de la ciudad de Vitoria-Gasteiz.

En prueba de su conformidad ambas partes firman el presente Convenio

**D. Kepa Odriozola Azula jauna**

**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
**Consortio de Aguas de Bilbao Bizkaia**